

Klima-aldaketaren erronka eta osasunean dituen ondorioak



Iturria: Gaixotasunak Kontrolatzeko eta Prebenitzeko Zentroak (AEB)

Aspalditik dakigu pertsonen osasunak lotura estua duela bizi den ingurumenarekin, eta, beraz, planeta osasungarria behar da oraingo eta etorkizuneko pertsonak osasuntsu egoteko eta osasuntsu mantentzeko.

Azkenaldian ingurumen-arazoen barne ,klima-aldaketak eragindakoak hartzen ari dira.

Klima-aldaketa, krisi klimatikoa edo larrialdi klimatikoa ere bai dei dezakeguna, gure planetako baliabide naturalen gehiegizko ustiapenaren emaitza da; abeltzaintzarako, meatzaritzarako edo giza habitaterako deforestazio masiboa, erregai fosilen kontsumo irrazionalarekin batera. Bide horrek CO₂-aren eta berotegi-efektuko beste gas batzuen kontzentrazio-maila oso altuetara eraman gaitu.

Klima-aldaketa goraka ari den mehatxu nabarmena da osasun publikorako, populazio kalteberen babesa kontuan hartu behar dugun modua aldatuz bere "osasun eskubidea" ahulduz, eta egungo eta etorkizuneko belaunaldien osasuna babesteko eta hobetzeko beharrean jartzen du arreta, klima-aldaketari aurre egiteko argudio sendoenetako bat bezala.

medicusmundiren ustez, klima-aldaketa izango da munduko osasunerako eta ongizaterako erronka nagusienetako bat hurrengo urteetan, baita munduko osasun-ekitatea eza areagotu dezakeen elementua ere bai. Hori dela eta, bere lan-estrategien lehentasunen artean sartu nahi du bidegabekeria klimatikoaren eta osasun-arazoen arteko harremana.

medicusmundi Bizkaiaren aurkezpena eta posizionamenduaren lehentasunak

2022ko ekainaren 1ean, 19: 30ean

Ledo I eta II aretoa (4.solairua) Bizkaiko Medikuen Elkargoan (Lersundi kalea 9,Bilbo)

Aurreikusitako iraupena: Ordu 1